



Pasaden ostiralean eman zion hasiera HGB Ausarta Barakaldo EST-k aurrendenboraldi berriari, lehenengo entrenamenduekin. Denboraldi berezia izango da, Liga Femenina 2 jokatu baitu lehenengo aldiz, pasaden urtean igoera lortu ondoren. Estatuko bigarren kategorian da eta mailari eusteko helburuarekin etorri dira barakaldarrak. Asteburu honetan lehenengo partiduak jokatu dituzte, klubak antolatzen duen Hotel Gran Bilbao txapelketan. Aurten aurkari indartsuak izango dituzte aurrean, estatuko lehen mailan jokatzen duten: Lointek Gernika, IDK Gipuzkoa eta Errioxako Campus Promete.

SABADO 7 SEPTIEMBRE

17:15 Lointek Gernika - Campus Promete
19:30 HGB Ausarta Barakaldo - IDK Gipuzkoa

DOMINGO 8 SEPTIEMBRE

16:30 Partido por el 3º Y 4º puesto
18:45 Final

Logos at the bottom: Dto. Gernika, ausarta, B. PABLO LOPEZ, HGB, URBAN CABERO, REFORMAS CASILLAS, ALANSER.

Larunbatean final erdiak jokatuko dira: 17:15ean Lointek Gernika eta Campus Promete jokatuko dute eta 19:30ean HGB Ausarta Barakaldo EST, IDK Gipuzkoaren aurka. Igandean 3. eta 4. postuetako partidua jokatuko da eta 18:45ean finala. Gaineratu behar da asteburuari begira, Barakaldo EST Diabetes Cero elkartearekin bat egin duela elkartasuna bultzatzeko. Horretarako, jardunaldi bakoitzak 5€ko sarrera izango du eta aterako den diru guztia elkartearentzat izango da.